

## Hotz eta bero

BANILLAK ikaragarritzko dirutza mugitzen du. *Vanilla planifolia* orkidearen leka da benetako banilla. Zenbaitzuek beste orkidea batzuen lekak erabiltzen dituzte, ordezkoko gisa; Hego Amerikan, adibidez, *Leptotes bicolor*. Zuhaitzen gainean bizi diren orkideek ematen dituzte tankera horretako lekak. Tropikoetako orkideek. Banillaren osagai nagusia banillina da. Banillina sintetiko edo artifiziala munduaren beste muturrean egiten da, eta zura behar da horretarako, zuraren zuntza zertzen duen lignina zehazki esateko. Bada, artifizialetan, Norvegian egiten denak du sona handiena: Borregaard etxearenak. Tropiko sapa eta hezetik, Artiko hotz-hotz izoztura.

Makina bat gauzatan erabiltzen da banillina. Hotzetan eta beroetan. Sukaldaritzan asko, gozogintzan gehien; ezagunena, agian, banilla izozkia izango da.

Beroetan edo berotzeko: perfumeak eta likoreak. Perfume ugari du banillina; Europa aldean egiten

direnen heren batek baino gehiagok ba omen du. Bat probatzeko tentaldian erori nahi baduzu, heldu "Pure Vanilla" deiturikoari. Osagai guztiguztiak naturalak ditu, konposatu sintetikorik gabeak: Madagaskarko banilla, fresia gozoa (*Freesia* sp.), patxulia (*Chrysopogon zizanioides*), heliotropoa (*Heliotropium arborescens*) eta Tonka baba (*Dipteryx odorata*).

Beste berogarriak likoreak dira, horietan ere banilladunen aukera ederra dago. Gehienak banilla lekak koñaketan edo vodkatan beratzen jarrita egiten dira. Koñakarekin egindakoak beroagoak, sendoagoak, borobilagoak, urrintsuagoak dira. Vodkarekin egindakoak, berriz, mikatzak dira, lehoppunttu dotorea dute, eta kafearen edo beste edarien osagarri erabiltzen dira. Kahlua da horietako bat, eta merezi du hura dastatzea.



NOTACOOK.COM

Etxean egindako banillazko izozkia.

Berotzeko edo txoratzeko, ez dakit, baina zigarroetan ere bada banilla gustua duenik. Aspaldi ikusi ez dudana lagun pakistandar batek, Xuebek, Djarum izeneko batzuk aipatu ohi zituen. Hark zioenez, zigarro haien kean sartzea, horixe zen bere herriko giroan murgiltzea. Hori bai tentazioa: zigarroek banillazko urrina zabaltzen duten herria ezagutzea... ■



## Irakurleak galdezka

Kaixo. Baratze txiki bat dut Durangaldean, eta azken boladan arrak azaldu dira eta dena jaten dute. Bata horixka eta beltza da, pinu beldarra bezalakoa, eta bestea orlegi iluna. Ez naiz botikazalea eta banan-banan akabatzen nituen, baina hori ez da soluzioa. Entzunda nago zolda belarra izeneko landareak uxatzen dituela, baina ez

dut ezagutzen. Lagunduko bazenit poztuko nintzateke. Agur eta mila esker.

Alberto (Durangaldea)

Kaixo Alberto, aurtenean dugu aza jendearen harraren izurritea. Tximeleta txiki larri batek jartzen dituen arrautzetatik sortzen dira har horiek. Aukera bat arrautzak lehertu eta harrak jaiotzean tratatzea da. Horretarako nikotina eta xaboia erabili: eskukada bat tabako uretan eduki gau batez, eta ur horretan xaboi koskorra eskuekin igurtzi, ura zuritu arte. Horrekin tratatu harrak, ongi bustitzen saiatuz.

Beste aukera bat tximeletari arrautzak jartzen ez uztea da. Begira Japonian izan berria den lagun batek bidalitako argazkia: sare bat jartzen dute udara amaieran eta udazken hasieran, tximeleta hegan dabilen sasoiaren. Sareak ez dio arrautzak jartzen uzten. Arrautzarik gabe harrak akabo!



PABLO ORMAETXEA

Bestetik, baratzea landare usaindunaz inguratzeak laguntzen du: labandak, mendak, oreganoa... Horiek intsektuak, tximeletak eta abar uxatzen dituzte. Ea zerbaiterako balio dizun. Ongi bizi. ■